



Tonbolia

Hogeitazortzi urte luzez ezagutu genduan Ermuan Tonbola Benefikua. Inguruko parrokia batzutako ereduari jarraituz jarri eban martxan Don Teodorok ta hasierako urtietan plazako arkupe zaharretan egon bazan, geruago Eliza aurreko arkupietara pasau eben.

San Pelaixoko erromerixa egunetik Abuztuaren lehenengo domekararte eukitzen zan zabalik, asteburu eta Santixauetan bakarrik. Sarixak azken domeka horretako salmentekin amaitzen zian ta egun horretako irabazixak zian benetako irabazixak, ze erositxakua ordaintzen egon bihar izaten zan ordurarte.

Aurretixaz, Febreru aldera edo eitxen zian erosketak ta egon be danetik egoten zan: kristalerixak, bajillak, zamauiak, mantak, garbitxasuneko gauzak, jatekua, edatekua, umien jostailuak... etxe bat goitxik eta behera hornitzeko lainēkua! Edozein gauza tokau ezker, lejia botilla ziztrin bat izan

arren be, pozik jendia! Premixoduna hartzia izaten zan gauziori. Baiña momentuan tokau ezian, gorde ha txartela ta azkenengo eguneko zozketan telebisiñua, josteko makiñia edo bajillia urtetzeko aukeria ekazun; bestelan puntuak batu ta gustoko zeozer hartu.

Zozketatzen zan generua apropos eiñdako egurrezko armailla batzutan ipintzen zan zabal-zabalik, jendiak hobeto ikusteko. Urte batetik bestera gorde eitxen ziran harek oholak, Eliza azpiko lokaletan. Harotzen arduria izaten zan ta tonbolia zabaldu baiño egun batzuk lehenaoko hango mailukotsak ez eken amairik, harik eta dana ganoraz josi arte.

Gero gordeta euan lekutik tonbolara eruan bihar izaten zan ha generu guztixa ta jende ugari ibiltzen zan karriuan, zumitzezko otzara haundi batzukin, karga itzelak tatarrazten.

Estibalitz Gonzalez